

EUSKO LEGBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA



10\20\00\00\0149 espediente zk.

N.º expediente: 10\20\00\00\0149

Jesús Posada Moreno jñ.
Diputatuen Kongresuko presidentea


Sr. D. Jesús Posada Moreno
Presidente del Congreso de los Diputados

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Batzordeko Mahaiak, Legebiltzarreko Mahaiak 2011ko irailaren 13an onetsitako erabakian xedatutakoaren arabera jokatuz, behean adierazten den erabakia hartu du proposamen honi buruz: Europako Legebiltzarren eta Kontseiluaren erregelamendua, ekoizpen ekologikoari eta produktu ekologikoen etiketatzeari buruz, zeinaren bidez aldatzen baita Europako Legebiltzarren eta Kontseiluaren XXX/XXX Erregelamendua [kontrol ofizialei buruzko Erregelamendua] eta indargabetzen baita Kontseiluaren 834/2007 (EE) Erregelamendua:

- "1. Proposamena Europar Batasunerako Batzorde Mistoko Idazkaritzak bidali zion Legebiltzar honi, subsidiariotasun-printzipioaren betekuntza egiaztatze aldera 'alerta azkarra' izeneko prozeduraren bitartez.
2. Ezarritako epearen barruan legebiltzar-taldeen ez dute inolako oharrik egin, ez eta agerraldirik eskatu ere.
3. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak batzordeari idazki bat helarazi zion 2014ko apirilaren 8an, non ez den zalantzan jartzen Europar Batasunaren ekimenak subsidiariotasun-printzipioa errespetatzen duela, baina planteatzen du balitekeela proposamen horretan Batasuneko erakundeen esku-hartze hain trinkoa egotea non proportzionaltasun-printzipioaren

La Mesa de la Comisión de Desarrollo Económico y Competitividad, actuando conforme a lo dispuesto por el acuerdo de la Mesa del Parlamento de 13 de septiembre de 2011, ha acordado, en relación con la propuesta de reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo sobre producción ecológica y etiquetado de los productos ecológicos, por el que se modifica el Reglamento (UE) nº XXX/XXX del Parlamento Europeo y del Consejo [Reglamento sobre controles oficiales] y se deroga el Reglamento (CE) nº 834/2007 del Consejo, lo siguiente:

- "1. La propuesta ha sido enviada a este Parlamento por la Secretaría de la Comisión Mixta para la Unión Europea en orden a la verificación del cumplimiento del principio de subsidiariedad mediante el procedimiento conocido como 'alerta rápida'.
2. Dentro del plazo establecido no se han formulado observaciones por parte de los grupos parlamentarios ni se han solicitado comparencias.
3. El Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad remitió el 8 de abril de 2014 a la comisión un escrito en el que no se cuestiona el respeto de la iniciativa de la Unión Europea con el principio de subsidiariedad, si bien plantea la posibilidad de que dicha propuesta contenga una intervención tan intensa de las instituciones comunitarias que pudiera comportar un



bortzatzea ekar baitezake horrek.

4. Nolanahi ere, aipatutako egitate horiek oinarri hartuta, batzordea erregelamendu-proposamenaren jakitun geratu da, eta adierazi du ez duela hauteman inolako oinarri edo ziorik justifikatzeko ez dela egokitzen subsidiariotasun-printzipiora, eta, hain zuzen ere, printzipio horretara mugatu behar dugu txosten hau".

Eta horrela jasota geratzeko, ziurtagiri hau egiten da batzordeko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2014ko apirilaren 16an.

Ontzat emana
BATZORDEKO LEHENDAKARIA
Visto bueno
EL PRESIDENTE DE LA COMISIÓN

Javier Carro Iglesias

forzamiento del principio de proporcionalidad.

4. De todas manera, y con base en los hechos anteriormente referidos, la comisión toma conocimiento de la propuesta de reglamento, sin que le conste fundamento o motivo alguno en el que pueda justificarse su no adecuación al principio de subsidiariedad, principio al que hemos de circunscribir el presente informe".

Y para que así conste, se expide la presente certificación con el visto bueno del presidente de la comisión, en Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 2014.

BATZORDEKO IDAZKARIA
EL SECRETARIO DE LA COMISIÓN

Vicente Reyes Martín

Bakartxo Tejeria Otermin
Legebiltzarreko lehendakaria / Presidenta del Parlamento

